PELLO SALABURU

Pello Salaburu Arizkunen (Baztan) jaio zen 1951. urtean. Soziologia eta Euskal Filologia ikasi zituen Deustuko Unibertsitatean, eta Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) doktoratu zen Baztango euskalkiaren fonetikari eta fonologiari buruzko tesiarekin.

Euskal Filologiako katedraduna da EHUn. Euskara, oro har, eta Baztango euskalkia, bereziki, ikasi ditu, munduko unibertsitate-sistema ezberdinetan ikertzearekin batera.

Bibliografia zabala du eremu horietan guztietan: 12 liburu egile gisa, 43 liburu lankidetzan eginak eta 86 artikulu aldizkari espezializatuetan, hizkuntza ezberdinetan eta hainbat herrialdetan. Halaber, hainbat doktorego-tesi zuzendu ditu.

Gainera, egonaldi ugari egin ditu atzerriko unibertsitate edo zentrotan; hala nola, MIT; University of Reno, Nevada; Rosario; Tilburg; University of New Mexico; Cornell University; edo UC Berkeley.

Era berean, mundu osoko mintegietan, ikastaroetan eta biltzarretan parte hartu du, eta hizlari moduan gonbidatu dute herrialde hauetako unibertsitateetan edo ikerketa-zentroetan: Florentzia, Boston, Mexiko, Kalifornia, Paris, Londres, Madril, Bartzelona, Tarragona edo Iruña.

2002 eta 2010 urte artean, Euskaltzaindiako Gramatika Batzordeko lehendakaria izan zen; halaber, hiztegi batuaren koordinatzailea eta Euskal Gramatika: Lehen Urratsak bildumaren zazpi liburukien hainbat kapituluren idazlea. Gramatika bilduma euskararen inguruan orain arte argitaratu den gramatika deskribatzailerik zehatzena da.

UPV/EHUko errektoreordea (1992-1996) eta errektorea (1996-2000) izan da. Euskaltzaindiako jarduneko kideen dekanoa da; Zientzien eta Arteen Europako Akademiako (egoitza nagusia Salzburgon) kidea 2000. urteaz geroztik; Nevadako Unibertsitateko (Reno) CBSko Advisory Board-eko kidea 2001. urteaz geroztik. Basque Classics bildumaren (UNR) koeditorea ere bada; UPV/EHUko Euskara Institutuko zuzendaria; eta euskarari buruzko hizkuntza-korpusen egilekidea (XXI. mendekoak dira, dauden garrantzitsuenak). Modu berean, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko (UPM) Kudeaketa eta Politikako UNESCO Katedraren Aholkularitza Batzordeko kidea da. 2007. urteaz geroztik, Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholkularitza Batzordeko kidea da, besteak beste.